

# ERASO MATXISTARIK GABEKO FESTAK

## EZ BETI DA EZ

Ez izan konplize LGTBifobiaren aurrean; ez gelditu isilik.  
Herritar guztion ardura da **ERASO MATXISTAK BAZTERTZEA.**

Bakarrik  
**BAI**  
da Bai

### ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Emakumeen, nesken eta arautik kanpoko genero-identitate edota sexualitatea duten pertsonen duintasunari, estimuari eta osotasun fisiko eta mentalari zapalkuntza eragiten dieten ekintzak dira.

Egiturezko indarkeria da, gizarte guztietan eta gizartearen eremu guztietan azaltzen delako.

- *Indarkeria sexista*
- *Homofobia*
- *Lesbofobia*
- *Transfobia*
- *Arrazakeria*

### ZER EGIN ERASO BATEN AURREAN?

- **Ez isildu eta ez ezkutatu.** Erasoren erantzukizuna erasotzailearena da, ez eraso jasan duenarena.
- **Erantzun erasotzaileei, geldiarazi beren jarrerak.** Eman babesa eta laguntza lagunari, izan ezaguna edo ezezaguna. Ez utzi bakarrik!
- **Sexu-erasoa edota eraso fisikoa jasan baduzu,** zeure erabakia da salatzea edo ez.
- **Bilatu konfiantzako norbait** lagun zaitzan.



#### 24 ORDUZ MARTXAN DAUDEN TELEFONOAK

##### SALATU NAHI BADUZU

**Larrialdia 112**

##### SALATU NAHI EZ BADUZU

**SATEVI:** Sexu erasoak jaso dituzten emakumeentzako informazioa eta arreta: 900 840 111



#### ORIOKO BALIABIDEAK (astelehenetik ostiralera)

Gizarte zerbitzuak:  
943 83 03 46 luz.6

Saregile Orioko Emakumeon\* Etxea:  
623 178 553

### SEXU-ERASO BATEN AURREAN AUKERA HAUEK ERE BADITUZU:

#### ZUZENEAN OSPITALERA JOAN

Osasun-azterketa egingo dizute, nahiz eta osasun-txartelik izan ez. Salaketa bideratzeko betebeharra dute.

#### GUARDIAKO EPAITEGIRA JOAN

Biktimari laguntzeko zerbitzuaz galdetu; han azalduko dizute guztia. Kalkutako Teresa plaza 1, Donostia. Astelehenetik larunbatera, 9:00-14:00 eta 17:00-20:00 Igandetan, 10:00-14:00

**FROGAK funtsezkoak dira** izan daitekeen epaiketari begira.

**EZ ALDATU ARROPA,** eta **EZ GARBITU** gorputzeko atal bat bera ere osasun-azterketa egin arte. Osasun-txostenen kopia eskatu, salaketa jartzeko beharko duzu.

### GUZTION GOZAMENERAKO FESTA BATZUEN ALDE, **ESAN BAI:**

Zure buruarekin ondo sentitzeari, sexualitateak askatasunez bizitzeari, harreman eredu berriei, zu zeu izateari, zaintza-lanak banatzeari, askotariko gorputzei, elkartasun multikulturalari, plazerari!